



Xabier Azpitarte – Leire Benito del Valle

Aixerrota BHI, 15-16

Aurkibidea

Dolores Redondo	3
Sarrera	3

Zaindari ikusezina

• Kokapena	3
• Gaia	4
• Argumentua	4
• Istorioa	4
• Pertsonaiak	5
• Egituraketa	6
• Baliabideak	6
• Iritzia	7

Bibliografia	8
Webgrafia	8

Dolores Redondo

Dolores Redondo 1968an Donostian jaiotako euskal idazlea da. Zuzenbide ikasketak egin zituen eta bere literatura-ibilbidea kontaera laburrak eta haurrentzako ipuinak idatziz hasi zuen. 2009an argitaratu zuen lehenengo eleberria, *Aingeruaren Pribilegioak* izeneko nobela historikoa, Pasaia eta Donostiako arrantzale-munduan girotua. 2013an *Zaindari ikusezina* thrillerra argitaratu zuen, hamar hizkuntzatarara itzuli dena. Euskararako itzulpena Josu Zabaletarena da. Baztango trilogiaren lehenengo emanaldia izan zen. Ondoren, *Hezurren ondarea* eta *Ekaitzari eskaintza* publikatu zituen.



Sarrera

Zaindari ikusezina hilketa batzuen inguruan egiten den ikerketa kontatzen digun nobela bat da, ikerketaren arduraduna den Amaia bere jatorrizko herrira bueltatzera behartzen du. Amaiaren Elizondon, igarotako haurtzaroa gogorra izan zen, eta hainbat oroitzapen ditu, ikerketaren estresak eraginda. Ikerketa aurrera doan heinean izaki mitologikoren batekin egiten du topo; horrenbestez, errealitateko elementuak fantasiako elementuekin nahasten ditu. Laburbilduz, nobela zirraragarria da, eta irakurtzea gogoko duen edonorentzat gomendagarria.

Zaindari ikusezina

Kokapena

Obraren zati gehiena Nafarroan kokatzen da, batez ere Elizondon edo inguruetan, baina zati batzuetan istorioa Iruñean garatzen da. Beste leku batzuk ere aipatzen dira, baina ez dute berebiziko garrantzirik; adibide batzuk Huesca edo Irun dira.

Garaiari dagokionez, modernoa dela argi dago, Amaiak emailak bidaltzea ahalbidetzen dion PDA bat baitu. Lehenago esan bezala, gai nagusia hilketak eta horien inguruko ikerketak dira, baina azpigaiak familia-kideen arteko erlazioak edo senar-emazteen erlazioak dira, besteak beste. Pertsonaiarik garrantzitsuenak Amaia, James, Jonan, Flora eta Engraxi dira. Lehena inspektorea da, bigarrena Amaiaren senarra, Jonan Amaiaren lankidea da, Flora Amaiaren ahizpa eta Engraxi bere izeba.

Gaia

Eleberrian hainbat gai jorratzen dira, euskal mitologia eta emakumeen zailtasunak lana lortzeko orduan. Baina, hilketez aparte, gai nagusia pertsonen arteko harremana da, bikote harremanak, lankideen arteko harremana eta familia.

Argumentua

Nafarroako Foru Aldundiko hilketen inspektorea den Amaia Salazarrek Elizondora joan behar du hilketa batzuk ikertzeko. Serieko hiltzaile bat dela ematen du, eta neska gazteak hiltzen ditu, ondoren haien umetasuna nabarmentzen duten erritual batzuk egiten dituen. Elizondon egoteak bere haurtzaroko oroitzapenak dakartzkio, umezaro gogorra izan baitzuen. Izeba Engraxiren etxean bizi da, eta Amaia eta bere ahizpak diren Flora eta Rosekin dituen ika-mikek garrantzi handia hartzen dute. Ikerketa aurrera doan heinean izaki mitologikoren bat egon daitekeela iradokitzen duten aztarnak aurkitzen dituzte, gerora baztertzen duten arren.

Istoria

Amaiak bere jaioterriaren ondoko baso batera joan behar du neska bat hilda agertu delako, Ainhoa Elisazu. Gerora, beste hilketa baten oso antzekoa denez aurrekoarekin erlazionatzen dute, eta lehenengo neska, Carla Huarte, hiltzeagatik kondenatu dute bere mutil-laguna zena. Bigarren krimena gertatu zenean kartzelan zegoenez, libre utzi behar dute eta benetako hiltzailearen bila hasten dira. Ikerketa aurrera doa, baina ez dute inora daraman pistarik lortzen, hala ere, badaude oso arraroak diren ileak, eta plantigrado handi batenak diruditen markak ere. Hildako nesken jantziak urratuta aurkitzen dituzte, pubiseko ilea moztuta eta haien gaztetasuna ezkutatu lezaketen edozein gauza gabe (makillajea kenduta...); horrez gain, birjinen itxura dute, ahurrak gora begira. Geroago, beste biktima bat agertzen da, Anne Arbizu, besteen oso antzera hilda, ezberdintasun txiki batekin: Annek bere bizitzagatik borrokatu zuen. Hasieran, Freddy, Rosen senarra dena, arazoak dituzten arren, Anneren hiltzailatzat hartzen dute, baina aukera hau ezeztatzen dute.

Hiltzailea harrapatzea ez da Amaiak duen arazo bakarra, Elizondok oso oroitzapen txarrak ekartzen baitizkio, haurtzaro oso gogorra izan zuelako. Amaiaren amak bera gorroto zuen, eta behin hiltzen saiatu zen; horrezkero, izeko Engraxiren etxean bizi izan zen. Beste alde batetik, bere bi ahizpekin ditu arazoak, Florarekin duen erlazioa Rosekin duena baino askoz txarragoa den arren. James, bere senarra da, Amerikako Estatu Batuetan jaio zen, eta eskultorea da. Honek seme bat eduki nahi du, baina Amaia, aldiz, ez dago oso ziur.

Amaiak Jonan, Zabalza eta beste lankideekin batera ikertzen jarraitzen du, Montesek asko laguntzen ez dion arren. Amaiak ezagutu berri zituen zientzialari batzuei aztarna batzuk eman dizkie, eta gerora berebiziko garrantzia izango duten kamara batzuk jartzen dituzte hilketetako bat gertatu zen lekutik hurbil.

Geroago beste gorpu bat agertzen da, eta aurreko krimenekin antz pixka bat duen arren, laster ikusten dute ez dituela pertsona berberak egin. Neska hau hil zuenaren aitaordea kondenatzen dute, eta beste barik, aurrera jarraitzen dute beste ikerketarekin. Amaiak lagun zahar bat deitzen du, Estatu Batuetan ezagutu zuen ikerlari bat, oso jakintsua dena. Honek aholku bat ematen dio, ikerketa geldi-geldi geratu baita. Erresetean behar du, kasua hasieratik aztertu.

Amaiak bere burua egun libre bat hartzera behartuta ikusten du, presio eta estres handia duelako. Jamesekin eta Rosekin doa mendira, eta gailurrera heldu baino lehen hauek biak gelditu egiten dira, Rosek orkatila bihurritu duelako eta azken zatia oso malkartsua denez ezingo duelako igo. Gora iristean Amaiak emakume bat ikusten du, ikerketari buruzko datu garrantzitsu batzuk ematen dizkiona. Gerora, haren hizketaldia familia-kideei kontatzen dienean Mari dela konturatzen dira.

Hortik aurrera dena doa azkarrago; Florak bere senarra den Bittor hiltzailea dela aurkitzen du, gorpuen gainean agertzen zen opil batengatik eta Montesek eman zion informazioagatik. Orduan bere eskopeta hartzen du eta Bittorren etxera doa. Bertan Bittor hiltzen du Amaia bertara heldu baino lehen. Bittorrek pistola bat zuenez, Florak defentsan baino ez ziola tiro egin argudiatu zuen, eta aske geratu zen. Kasua amaitutzat jotzen da, hiltzailea hilda dagoelako eta Bittor zela bermatu delako.

Azkenean, Amaia haurdun geratzen da, eta hurrengo liburuan, *Hezurren ondarea* liburuan, istorioak aurrera jarraitzen du. Baina hori beste historia bat da.

Pertsonaiak

- **Amaia**

Istorioko protagonista da emakume hau. Nafarroako Foru Aldundiko Hilketak Saileko inspektorea da. Fisikoki, Amaia ez da gehiegi apaintzen, makillaje pixka bat eta ilea motots baten bildurik eramaten du beti. Berak dioenez, mutil itxura du eta emakume sentiarazten dion bakarra bere senarra, James, da.

Emakume indartsua da, baina istorioa igaro ahala izututa dagoela eta txikitako traumak dituela ikusten dugu. Elizondora itzultzearekin batera txikitako egoera gogoratzen du eta, horren ondorioz, oraindik beldurra sentitzen du. Arazo horiek herri horretan bakarrik izango da gai konpontzeko.

Pertsonaia honen funtzioa istorioan mota honetako eleberrietan agertzen diren pertsonai rolei amaiera ematea da. Horregatik erabiltzen du dagoen lekura iristeko hainbat esfortzu egin behar izan dituen emakumea, gehienetan gizonezko alkoholikoak eta erretxinak izaten baitira protagonista.

- **James**

Amaiaren senarra da. Artista amerikarra da eta Pamplonaz liluraturik han bizitzea erabakitzen du. Bertan bere emazte ezagutzen du eta istorioan zehar berarentzat oso garrantzitsua izango da. Nahiz eta aita izateko dituen nahiak Amaia urduritu, bere euskarria izango da.

- Flora
Amaiaren ahizpa nagusia da. Oso emakume langilea eta perfekzionista da baina, aldi berean, harroa eta burugogorra da. Gehienetan mespretxuz hitz egiten die bere ahizpei, bere burua martiritzat duelako, bera izan baitzen beraien familiaren negozioa aurrera eraman zuena.
- Engraxi
Amaiaren izeba da baina, esan liteke Amaiaren ama dela berak bereziki hezi duelako protagonista, honen ama gaixorik baitzegoen. Amaiarekin identifikatuta sentitzen da, honek bezala gaztaroan Elizondotik alde egin eta geroago herrira itzuli behar izan zuen eta. Karten bidez etorkizuna igartzeko gai da eta bere aburuz hau heredatu egiten den gaitasun bat da.
- Jonan
Amaiaren lankidea da. Antropologia eta Arkeologia ikasi duen gazte bat da. Nobelan garrantzi handia du, Elizondon sustrai sakonak dituzten ohiturak ulertzen laguntzen baitigu.

Egituraketa

Oro har kontaketa lineala da, Amaiaren haurtzarora erreferentzia egiten dioten flashback batzuk kenduta. Hau da, 2010 inguruan kokatzen da, baina 1989ra doa batzuetan.

Gabon zaharretan izeba Engraxik ere margotzen ditu ezpainak. Ea gaur arratsalderako ezer daukagun. Arratsaldero lauretan denak hemen.

1989ko udaberria

Izaten ziren egunak onak ere, igandeak ia beti, gurasoek lan egiten ez zuten egun bakarra. Amak kruasan kurruskatsuak eta mahaspasekiko egia erretzen zuen etxeko labean, eta ordutan irauten zuen urrin gozo, samur bat uzten zuten etxe osoan.
(81-82)

Aipatu beharra dago liburua 43 kapitulutan banatuta dagoela. Hala ere, esan daiteke istorioa bi zatitan bana daitekeela: Amaiaren bizitza pertsonala eta bere lana. Izan ere, eleberrian gertatutako hilketei buruz hitz egiten da, baina protagonistaren bizitza pertsonala ere asko jorratzen da.

Baliabideak

Nobela prosazko lana da bereziki, hala ere, elkarrizketa ugari daude, pertsonaiek euren arteko harremana nolakoa den asma dezagun. Horrez gain, leku eta pertsona deskribapen ugari egiten ditu.

Narratzaileak kontatzeko erabiltzen duen estiloa nahiko erraza da eta erabiltzen duen hizkuntza Amaiak Aloisiusekin hitz egiten duenean soilik moldatzen du, frantsesez hitz egiten dute eta:

—Je suis Alouisius (368)

Horrez gain, esan daiteke Amaia inspektoreekin dagoen kasu batzuetan idazleka hizkuntza teknikoa erabiltzen duela:

—Zer dakizu rigor mortisari buruz, Etxaide? (14)

Narratzailea orojakilea da, hirugarren pertsonan idatzita dagoelako istorioa eta honek gertatzen den guztia baitaki: pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak...

Iritzia

Obra honek argitaratu zen unetik aurrera arrakasta handia lortu du, eta ez da harrizkoa, luze samarra izan arren, arin irakurtzen delako, behin hasita ez baitiozu irakurtzeari utzi nahi.

Hasteko, liburu bi hizkuntza desberdinetan irakurrita esan behar dugu gaztelaniazko bertsioa gehiago gustatu zaigula, akatsen bat duelako eta ez dagoelako originala bezain ondo idatzita. Hala ere, euskarazko bertsioa oso ona da. Kontakizuna originala da, ez da beste nobelen antzekoa, mitologiari buruz hitz egiten duelako, eta honek bere interesa du, geure usadio eta historiaren zati bat direlako. Baina, badaude mitologiaren gehiegi diharduela diotenak ere.

Bigarrenik, jorratzen dituen gaiak oso interesgarriak direla eta hainbat pertsona Amaiarekin identifikatuta sentitu daitezkeela esan daiteke. Tamalez, gaur egun hainbat pertsonak tratu txarrak jasotzen dituzte eta liburu honen bidez, beraien arazoak ez konpontzeak ze arazo ekar ditzakeen ikus ditzakete. Horrela, ziurrenik konponbide bat bilatuko diote beraien buruhausteari. Gainera, Amaiaren antzera, hainbat pertsona+ak haurrak izateko zailtasunak dituzte. Beraz, Amaiaren eta Jamesen egoera ulertuko dute eta beraien egoeran jartzeko gai izango dira. Hala ere, protagonisten larruan jarri gabe liburuaz gozatu daiteke, misteriozko eta intrigazko eleberri bat da eta.

Azkenik, nobela beltzeko estereotipoak erabili ez izanak irakurleak erakartzen ditu. Hainbat irakurle beti liburu mota berdinak irakurtzeaz nekatuta daude, gehienetan ekintza berdinak gertatzen direlako eta batzuetan nobelan zer gertatuko den asmatzeko

gai izaten dira. Horregatik, Redondok eleberri hauetako rola hautsi izana liburuaren arrakastaren arrazoi nagusia izan da, horrelako liburu askorik ez baitago salgai.

Laburbilduz, gure aburuz eleberri oso entretenigarria da hau, aurretik esandako arrazoiengatik. Hori dela eta, edozein pertsonari gomendatuko genioke liburu hau, gure ustez adin guztietako jendeak disfrutatu dezakeelako nobela hau irakurriz. Gainera, istorioaren amaiera argi dagoela pentsatu arren, ezustekorik ez da faltako.

BIBLIOGRAFIA

Zaindari IKusezina, Dolores Redondo. Erein.

WEBGRAFIA

<http://www.bostakbat.org/azkue/>

https://eu.wikipedia.org/wiki/Dolores_Redondo

http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

<http://librosquehayqueleer-laky.blogspot.com.es/2013/01/presentacion-de-el-guardian-invisible.html>

http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

<http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>